

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

5562

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 20koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez ebazten baita Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko «goi-kargudunaren idazkaria» lanpostua izendapen askez betetzeko deialdi publikoa.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak 102.2.c) artikuluan xedatutakoa betez, eta bat etorriaz Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen zuzendari nagusiaren 2024ko azaroaren 20ko Ebazpenarekin (zeinaren bidez ebazten baita Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko «goi-kargudunaren idazkaria» lanpostua izendapen askez betetzeko deialdi publikoa), hau

EBAZTEN DUT:

1.– Mar Berastegui Zapatero andrea izendatzea Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren «goi-kargudunaren idazkari» (kodea: 520010; dotazioa: 122), izendapen askeko sistema bidez.

2.– Izendapenak 2024ko azaroaren 26tik aurrera izango ditu ondorio guztiak.

3.– Agindu honek administrazio-bidea agortzen du; beraz, haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakiok agindua eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazten den egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Barakaldo, 2024ko azaroaren 20a.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
MARÍA LOURDES ISCAR REINA.